



Irakurketa Errazean

Landa-eremuko emakumeen eguna 2025. **Nafarroako politikaren bazterretik erdigunera**

Dokumentu honetan

Nafarroako toki eta lurralde entitateek

mezu bat eman nahi dugu

aurtengo landa-eremuko emakumeen egunean.

Nafarroako toki eta lurralde entitateek

Nafarroako gai publikoak kudeatzen dituzte,

adibidez, udalek.

Mezu honekin esan nahi dugu

landa-eremuko emakumeak

landa-bizitzan oso garrantzitsuak direla.

Emakume hauek beti izan dira garrantzitsuak

eta gaur egun ere bai.

Landa-bizitza hirietan bizi ez diren

pertsonek eramaten duten bizimodua da,

adibidez, herrietako pertsonek daramaten bizitza

edo baserrietan bizi direnek daramatena.

Landa-eremuetan lan egiten duten emakumeek

entzunak izan nahi dute

eta erabaki garrantzitsuetan parte hartu nahi dute.



Zer eskatzen dugu egun honetan?

Landa-eremuko emakumeek
bizitza politikoan eta eragiten dieten erabakietan
gehiago parte hartu ahal izatea eskatzen dugu.

Legeak egiteko
gizarteak kontuan hartu behar du
landa-eremuko emakumeek zer behar duten.

Oso garrantzitsua da
emakumeak ikusezinak ez izatea
eta haiek kontuan hartzea
erabakiak hartzen direnean.



Zein arazo dituzte landa-eremuko emakumeek?

Landa-eremuko emakumeek
disparekotasun handia sufritzen dute, adibidez:

- Emakume izateagatik diskriminazioa jasaten dute.
- Herri txikietan bizitzeagatik ere bai.
- Batzuek zailtasun handiagoak dituzte, adibidez, adinekoak badira, migratzaileak badira edo desgaitasuna badute.
- Enplegua, etxebizitza eta garraio gutxiago dituzte.
- Beste pertsona batzuk zaindu behar dituzte ordainean dirurik jaso gabe.
- Lan egiteko, ikasteko edo gizartean parte hartzeko denbora gutxiago dute.
- Askotan laguntzaile bezala ikusten dituzte eta ez gidari edo liderrak izan daitezkeen pertsona bezala.



Zer gertatzen da formakuntzarekin eta lanarekin?

- Nafarroako 10 emakumetik
ia 3 emakumek unibertsitate-ikasketak dituzte.
- Emakumeek prestakuntza handia izan arren
gizonek baino diru gutxiago irabazten dute,
normalean gizonak
gehiago ordaintzen diren lanetan aritzen direlako.
- Lursail gehienak gizonenak dira.
Oso lur gutxi dira emakumeenak.
Adibidez, 10 lursail badaude,
horietatik 3 bakarrik dira emakumeenak.
Beste 7 lursailak gizonenak dira.
Gainera, lur jabe diren emakume gutxi horietatik,
ia inor ez da lur horien zuzendaria.



Beste gauza batzuek ere
landa-eremuko emakumeen bizitza zailtzen dute:

- Herri askotan emakumeak baino
gizon gehiago daude.
- Gazte gutxi daude.
- Ez dago aukera nahikorik
herrian geratzeko eta ongi bizitzeko.
- Indarkeria matxista dago,
hau da, gizonen aldetik
emakumeen aurka egindako indarkeria.
- Laguntza eskatzea zailagoa da
isolaturik bizi direlako
eta zerbitzuak urruti daudelako.

Egoera hau aldatzeko
bete behar diren lege batzuk daude:



- Berdintasunari buruzko Nafarroako legea, hau da, 17/2019 **Foru Legea**.
- **Nafarroako Berdintasunerako Plan Estrategikoa**, eta plan horretan **Landa Eremuko Emakumeen Estatutua**.

Politikatik egiten diren lege eta gizarte proiektu askok ez dituzte emakumeak kontuan hartzen ezta landa-eremuetan bizi diren pertsonak ere.

Horregatik, lege eta politika horiek ez dira egokiak.

Zer irtenbide proposatzen ditugu arazo horientzako?

Nafarroako toki eta lurralde entitateok 5 helburu hauek lortzeko lan egin nahi dugu:

1. Antolatze modua aldatzea.

Antolatu behar gara emakumeak eta landa-eremuak garrantzitsuak izan daitezen.

Herrietan ere pentsatu behar dugu, ez bakarrik hirietan.

Landa-eremuko emakumeak baloratu behar ditugu gizartearen garapenaren parte garrantzitsu bat direlako.



2. Politika egitea generoaren eta landa-munduaren ikuspegia kontuan hartuta.

Oso garrantzitsua da politika publikoek lege guztietan landa-eremuko emakumeek zer behar duten eta haien bizitza nolakoa den kontuan hartzea.

Hau da, kontuan hartu behar dira berdintasuna, ingurumenaren gaia, landa-garapena, despopulazioaren arazoa eta beste hainbat gauza.

Despopulazioa da leku batean, adibidez landa-eremu batean, pixkanaka jende gutxiago bizi denean.



3. Landa-eremuko emakumeak eta haien elkarteak aitortzea.

Garrantzitsua da landa-eremuko emakumeen lana baloratzea kulturen, elikaduran, zaintzetan eta ekonomian.

Era berean, landa-eremuan egiten dakiten guztia transmititzeko egiten duten lana baloratu behar da.



4. Oinarrizko zerbitzuak bermatzea herri guztietan.

Oso garrantzitsua da
zerbitzu hauek guztiak bermatzea:

- Osasuna
- Hezkuntza
- Etxebizitza
- Garraioa
- Interneta
- Kultura
- Zaintzak
- Parte-hartze politikoa
- Indarkeriaren aurkako baliabideak

Behar duten landa-eremuko emakume guztiek
zerbitzu horiek bermatuak izan behar dituzte.

5. Landa-eremuetan bidezko diru inbertsioa egitea.

Diru eta laguntza gehiago eman behar zaie herriei,
berdintasunari buruz hitz egitea
ez delako nahikoa.
Berdintasuna errealitate bihurtu behar da.

Orain 5 helburu hauek lortzeko
lan egin nahi dugu.
Konpromezuarekin egingo dugu,
landa-eremuko agenda feminista batekin
eta herri bakoitzaren beharrak errespetatuz:

Emakumerik gabe **ez dagoelako landa-mundurik.**
Eta landa-mundurik gabe **ez dagoelako etorkizunik.**



Nork laguntzen eta finantzatzeko du
dokumentu hau egin ahal izatea?

Instituto
Navarro
para la Igualdad



Nafarroako
Berdintasunerako
Institutua

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



Texto adaptado y validado

por la **Oficina de Accesibilidad Cognitiva de Navarra**
de **ANFAS**

Logo europeo de lectura fácil: "© European Easy-to-Read Logo: Inclusion Europe.

Más información en <https://www.inclusion-europe.eu/easy-to-read/>

oacna

Oficina de Accesibilidad Cognitiva de Navarra

